Amurrio Antzokia

2005an inauguratu zen Amurrio Antzokia, Lavire zinema zegoen tokian. Ordutik hona kultur eskaintza zabala eskaini da bertan, zinemari eta arte eszenikoei lotuta, gehienbat. Maiatzaren 23an ospatuko da X. urteurrena

Aiaraldea

Bost urte bete ditu Aiaraldea Komunikazio leihoak 6. or.

Kirola

Maestre taldea, lehiaketa eta ikasketak uztartzeko jaioa 12. or.

Iritziak:

TXUTXI ARIZNABARRETA 2. or.
ISABEL BOVEDA 7. or.
MIKEL AYLLON 10. or.
MATEO PAGAZAURTUNDUA 11.or
JULEN REKETA 12. or
ITZIAR URKIJO 16. or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Maiatzak 5 ///
ASTEARTEA
33. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

Energia kontsumitu eta sortzeko eredu berrien bila

HEZKUNTZA AIARALDEAN

PUBLIZITATEA

Otxomaio 2015
Urduña jaietan
maitzaren 7tik 17ra

UMEENTZAKO PUZGARRIAK,
GYNKANA ETA ZIRKO ESKOLA
MAIATZAK 9 EGUN OSOAN ZEHAR

HABEAS CORPUS
MAIATZAK 16 22:30

UMEENTZAKO
1.TRIATLOIA
MAIATZAK 16 11:30

URDUÑA HIRIA
AURRESKU TXAPELKETA
MAIATZAK 16 19:00

III. GAUEKO
BBT MARTXA
MAIATZAK 16 22:00

MARMITAKO
TXAPELKETA
MAIATZAK 17 9:00

URDUÑAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA

info+ www.urduna.com
App: otxomaio jaiak (Android)

_iritzia

Txutxi
Ariznabarreta
INDEPENDENTISTAK SAREA

_Leihotik

Patenteak

Europar Batasuneko bataz bestekoekin konparatuz Euskal Herria ondo kokatuta dago berrikuntza adierazle gehienetan. Berdin ikerketa eta garapenera bideratzen den gastuari dagokionean. Horrexegatik, kontraesankorra egiten da zifra hain eskasak izatea honekin guztiarekin lotura zuzena duen adierazlean: patenteen erregistroan.

Gaindegiak kaleratu berria duen txostenaren arabera, 2010ean 159 patente erregistratu ziren Euskal Herrian; 51,4 patente milioi bat biztanleko. Zifra hau, urte bereko EBko bataz besteko milioi bat biztanleko 111 patenteren erdira ere ez da heltzen. Hala ere, kontuan izan behar da duela urte gutxi patentatzeko joera oso ezohikoa zela Euskal Herrian: 1990ean 40 erregistro besterik ez ziren egin. Gorako jauzia XXI.mendearekin etorriko da, 2008an goia jo arte 225 patenterekin. Krisiarekin behera egingo du kopuruak ondorengo urteetan. Baina ikerkuntzatik harago, erregistratzeko joera erabat baldintzatzen duen prozesu administratiboa da patentea. Garestia eta luzea herrialde batzuetan, espainiar estatuan adibidez; errazagoa eta merkeagoa beste toki batzuetan. Europar Batasuneko Patente Bakarra indarrean jartzeak ekarriko zituen onuren eta erregistroen suspertze eraginaren zain egon gara: EBko estatu guztietan aldi berean erregistratzea, prosezuaren erreztasuna, kostua 36.000 eurotik 5.000 eurora jaistea, ... Baina heldu da ordua eta Patente Bakarretik kanpo geratu da Espainiar Estatua. Ondorioz, honetan ere gure herria bitan zatituta, bi estaturen politika desberdinen menpe. Hego Euskal Herrian genituen onura esperantzak haizeak eraman ditu.

Berriro ere nabarmen ikusten da dependentzia, burujabetzarik eza, oso kaltegarria dela gure ekonomiarentzat.

_GALDERA

Zer egingo zenuke zure herriko alkate izango bazina?

HERRIZ HERRIKAKO BIDEOAK AIARALDEA.EUS-EN ARGITARATUKO DIRA

Rosi
Langilea (Orozko)

Ez dut nire burua lan hori egiten ikusten. Auzoei lehentasun apur bat emango nieke, apur bat abandonatuak baitaude. Dena dela, herriaren erdigunea polita dago. Gazteei begirako kultur ekitaldiei ere lehentasuna emango nieke, adibidez.

Marimar
Erizaina (Artziniega)

Artziniegako eskolan oso txarto dago aparkatzeko edo oinez bertara joateko. Nik hori hobetzeko zerbait egingo nuke. Hortaz gain, auzo batzuk herrian gehiago integratuko nituzke. Elurtea egon zenean auzo batzuetako jendea ezin baitzen herrira bertaratu.

Garazi
Langilea (Urduña)

Jendearekin hitz egingo nuke, herritarren iritziak jasotzeko. Batzarrak eginez, etxeetara inkestak bidaliaz... horrelako gauzak eginaz, Urduñako jendeak zer behar duen jakiten ahalegintzen eta behar horiei erantzuten.



Ainhize
Ikaslea (Orozko)

Gazteentzako gauza gehiago egingo nituzke. Multi-kirolak eta antzeko gauzak, adibidez. Agian gazteei zuzendutako eskaintza egitea baino umeei zuzendutakoa egitea ikusten dut, aukera gehiago izan dezaten euren denbora librea aprobetxatzeko.

Jose Miguel
Langilea (Amurrio)

Ez dakit zer egingo nukeen, langile soil a naiz. Agian aspektu sozialetan zer edo zer aldatuko nuke, beharrizanak dituzten pertsonen mesederako. Anbulatorio zerbitzu gehiago jarriko nituzke. Polizia asko dagoela ikusten dut, baina medikuak falta dira.

Eusebio
Komertziala (Laudio)

Kaleak hobetuko nituzke, eta laguntza sozial gehiago emango nituzke. Kultur eskaintza apur bat gehiago egotea ere ondo legoke. Korala, arloteak eta Musika Banda kenduta ez baitago ia bestelako kultur ekintzarik herrian.

Andrea
Ikaslea (Laudio)

Gazteriari begirako gauza gehiago antolatuko nituzke, baina ez indibidualki. Gazteria osoa mugitzeko ekintzak egingo nituzke data zehatz batzuetan. Horretaz gain, zenbait kale hobetuko nituzke, herriko kale asko nagusientzako nahiko txarto baitaude.

Amina
Ikaslea (Amurrio)

Alkate izango banintz erdiguneko parkearen segurtasuna hobetuko nuke, inguruan dabiltzan autoak arriskutsuak baitira umeentzat. Herri guztiak parte hartzeko moduko kultur ekitaldiak egitea ere ondo legoke, bi edo hiru hilabetean behin.

Luis
Langabea (Urduña)

Erantzun zaileko galdera da hori. Orain hirian egiten ari diren hobekuntzak egokiak iruditzen zaizkit, beste batzuk ere egin beharko liratekeen arren. Kirol arlotik ondo legoke umeentzako azpiegiturak egitea, aisialdiaz gozatu dezaten.

Alfredo
Jubilatua (Laudio)

Herriaren egoera hobetuko nuke. Kultura indartu beharko litzateke, eta aurreikusia dagoen erabilera anitzeko aretoa eraiki. Lamuza Parkeko eraikinen egoera ere hobetu beharko litzateke, nahiko izorratuak baitaude.

Juantxo
Ostalaria (Amurrio)

Nik herrigintza egingo nuke politika baino. Oso argi daukat hori egingo nukeela. Horrek zure gainetik dauden politikariei kasurik ez egitea suposatuko luke, benetan sentitzen duzuna egiteko. Herriarentzako onena dena egitea ekarriko luke horrek.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 669 83 57 87
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldeak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Urduña

Otxomaio jaiak ostegunean hasi eta maiatzaren 17an bukatuko dira

Herritarrek Foru Plaza beteko dute txupinazoan. /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Maiatzaren 7tik 17ra ospatuko dira Otxomaio jaiak. Guztira, 66 ekitaldi egongo dira.

Maiatzaren 7an 21:00etan Ivan Fandiño toreatzaileak jaurtiko du txupinazoa udaletxeko balkoitik eta hainbat ospakizun egingo dira hurrengo hamar egunetan.

Horien artean daude txapelketak zein kontzertuak. Lehiaketen artean boloena, musa, Koadrilen arteko Herri kirolak, playback eta koreografia txapelketa; patata tortilla, paella eta bakailaoa pil-pilean saritzeko lehia, zezenketena eta arrantza daude. Nobedadeen artean haurrentzako triatloia eta koadrilen arteko herri kirol txapelketa daude. Bestalde, pilota partidak, antzezlanak, kale animazioa, erraldoi eta buruhandiak, herri kirolak eta zumba klaseak ere antolatu dituzte, besteak beste.

Habeas Corpus-en kontzertua

Kontzertuak, berriz, 13 izango dira. Joko duen talde ospetsuena Habeas Corpus izango da, maiatzaren 16an. Hotza, Placton, Santa Zezilia Musika Banda, Kosmos, Atzekabe, Txiki-txiki Big Band, Luhartz, Basorantz, Five Corners, The Pushermen, Nueva Presión eta Akerbeltz. Udaberriko emanaldiak ere izango dira Urduñan.

Egitaraua kontsultatzeko bi aukera daude. Batetik, www.urduna.com webgunea kontsultatzea. Eta, bestetik, Android sistemako telefono mugikorretan "Urduña jaietan" aplikazioa deskargatzea.

Berdintasun plana eta udal langileen soldata igoera onartu dute udalbatzan

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa

Apirilak 30eko Udalbatzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2015-2017) onartu zuen. Planak hiru urte iraungo ditu eta urtero egingo diren ekintzetan zatitu dute. Diagnostikoa egiteko elkarteek zein norbanakoek parte hartu dute berdintasunarekiko Urduñako hiriak dituen gabeziak detektatzeko eta hobetzeko.

Udal langileen soldata igoera

Gainera, Udalbatzak udal langileei soldataren % 2 igotzea onartu zuen, izan ere 2011. urtetik ez dute igoerarik izan. Alkateari 2012ko abenduan kendutako aparteko ordainsaria ere ordaintzea adostu zen.

Bestalde, Urduñako zezen plazaren ondoko zelaian autokarabanentzako gunea egitea onartu zen.

Aiara

Luiaondo eta Arespalditza lotzen zuen bide zaharra konponduko dute

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa

Aiarako Udalak, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Arespalditza eta Luiaondo lotzen zituen bide zaharra egokituko du. Guztira bost kilometro izango dira eta Iturritxu erreka inguratu ondoren Santo Domingo baselizan bukatuko da.

Hala, Nerbioiko parke linealera iritsiko da ibilbidea, Arabako Ibilbide Berdeen Sarera batuz. Foru Aldundiak bidea diseinatzeko ingurumen enpresa bat kontratu zuen eta seinale homologatuak eman dizkio udalari. Orain, Udalak bideak zeharkatuko dituen Administrazio Batzarrekin hitz egin beharko du eta azken hauen onarpena lortu ostean, udal langileak lanean hasiko dira.

Petra hiriaren inguruko erakusketa Menoion

Ritxar Aguirre apaizak egindako argazkiek osatzen dute Petra hiriaren inguruko erakusketa. Menoioko eskola zaharrean ikusgai dago eta maiatzaren 24an kentzeko asmoa daukate. Bisitatzeko 610306068 telefono zenbakira deitu dezakete edo gorettimendia@gmail.com helbidera idatzi.

Maiatzaren 15ean izango da San Isidro azoka

Maiatzaren 15ean San Isidro azoka egingo da Arespalditzan. Aurtengo edizioan ganadu erakusketa kendu eta Piriniotako Behi Arrazaren Lehiaketa egingo da lehen aldiz. Araban mota honetako lehiaketa bakarra izango da eta San Isidro azoka lurraldean erreferentziazkoa bihurtzea da helburua.

_Iruditan

San Prudentzio Jaiak ospatu dituzte Aiaran. Adin guztientzako ekintzak antolatu badituzte ere, bereziki jendetsua izan da ohitura jarraituz umeek egin duten danborrada. Ikus ARGAZKI BILDUMA web-gunean.



_herriz-herri

Laudio

Besteak beste Lamuza parkeko kasinoa konponduko da. Aiaraldea.eus

1,5 miloi euroko inbertsioak aurrekontuan

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Apirilaren 24ko udalbatzan udalaren kudeaketarako garrantzitsua den tresna onartu zuten; aurrekontuak, alegia. Bildu udal gobernu taldearen bozarekin eman zen onarpena eta gainontzeko taldeak abstenitu dira.

Aurrekontuetan 24.328.846 euro jasotzen dira, 2014an baino 535.000 euro gehiago, hau da, %2,25eko igoera. Diru-sarrera garrantzitsuena Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsetik jasoko du Udalak, 2014koarekin alderatuta 874.640 euro gehiago.

Laudioko oposizioan aritzen diren taldeen jarrera ezberdina izan zen. Omnia, PP eta PSE-EE alderdiek kritikatu dute denbora gutxi egon dela herritarrek ekarpenak egin ditzaten. Berez Omnia eta PPk azaldu dute beraientzat aurrekontuen luzapena irtenbide zuzenena dela.

EAJk azpimarratu du herriak funtzionatzen jarraitu behar duela eta udal gobernu taldeak jeltzaleek proposatutako zenbait zuzenketa txertatu dituela aurrekontuetan; ostalaritza sustatzeko, Zubiko kalean obrak egiten jarraitzeko, Hornidura plazan konponketak egiteko, herriko altzari publikoetan mantenu lanak gauzatzeko, Arrañoko irisgarritasuna bermatzeko, kirol azpiegituretan hobekuntzak egiteko eta Santa Luziako aterpea taberna gisa eraikitzeko diru-sailak besteak beste.

Bilduren balorazioa

Bilduk uste du aurtengo aurrekontuek legealdiko balioak islatzen dituztela: "Partaidetza, adostasunak lortzeko gaitasuna eta gardentasuna Aurrekontu honen apustuak dira: gastu soziala handiagotu, enplegu duina sortu, euskararen normalkuntza sustatu, elkartegintza babestu eta 1,5 milioi € baino gehiagoko inbertsio errealak egin (duela 3 urte 20.000 € baino ez ziren izan)".

Udalak enplegu plana sustatuko du 5 pertsonarentzat

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

Tokiko Garapen Agentzia baliatuz, Laudioko Udalak enplegu eta trebakuntza plana planteatuko du, landa eremuan lanak egiteko helburuarekin.

Enplegu plana Udalaren berezko bitartekoekin garatuko litzateke. Horren bidez, lau langile eta langileburu bat kontratatuko lituzkete, sei hilabetez, lanaldi osorako. Guztira 39 ordu asteko.

Esku-hartzeak Ermuko Santa Mariako Ordenazio Plana oinarri hartuta erabaki dira. Proposatutakoetatik hamar aukeratu dituzte: 1) Plan Berezian proposatutako bideetatik hiruren atondura. 2) Larreen gestioaren hobekuntzari lotutako landa azpiegituren gauzatzea. 3) Itxiturak kentzea. 4) inausketa baxu eta garaiak gauzatzea. 5) Gehiegizko oinarrien mozketa eta ibilgailuen mugikortasunean eragiten duten elementuak kentzea. 6) Gehiegizko oinarrien seinaleztapena sute arrisku handiko baso-masetan. 7) Inausketa lanak gune hostotsu baxu eta garaietan. 8) Oinarri hostotsuen landaketa hutsunean estaltzeko. 8) Baso-itxiturak gauzatzea. 9) Sastrakak kentzea. 10) Masa begetala kentzea Kamaraka eta Agortako suebakietan. Programa enpresa desberdinei planteatu eta gero, Sartuk egingo duela erabaki dute.

Laudioarra zen apirilean Abadiñon lan istripu baten ondorioz hildako langilea

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Apirilaren 22an lan istripua gertatu zen Abadiñoko Fundiciones San Vicente enpresan 45 urteko Laudioko langile bat zulo batean erori zenean. Behargina hurrengo egunean hil zen gertakarian sufritutako zaurien ondorioz, nahiz eta helikoptero batek Gurutzetako ospitalera eraman zuen istripua izan eta gero. Enpresako langileek 24 orduko lan uztea egin zuten ostegunean eta atzo elkarretaratzea deitu zuten eguerdian.

Segurtasun falta

LAB sindikatuak zein langilearen inguruko pertsonek salatu dute Fundiciones San Vicente enpresak prebentzio neurri nahikorik ez zituela hartu. Orain Amurrio taldeak ere salatu zuen egoera apirilaren 28an.

AIARA - SAN ISIDRO 2015

Pirinioetako behi-azienda hautatuaren arabako I. Lehiaketa / Aiarako Lehenengo Sektorearen IV. Astea

Maiatzaren 13an

Aiarako Udaleko (Arespalditzan) Erabilera Anitzeko Aretoan:

16:30 Elikagaiak ekoisteko esperientzia txiki errentagarriak
Hizlariak: **Zigor Gorostiaga** (haragitarako behia) **Itziar Abasolo** (esne-behia) **Mikel Kormenzana** (esne-behietatik fruta txikietarako trantsizioa) **Iñaki Urkixo** (Sistemaren trantsizioa. Oilasko, txerri eta barazkien salmenta zuzena integratzea.) **Iñigo Domaika** (Euskal Txerri ekologikoa eta salmenta zuzena)

Maiatzaren 14an

Aiarako Udaleko (Arespalditzan) Erabilera Anitzeko Aretoan:

12:00 Nekazaritza Politika Bateratuaren (NBP) 2. zutabea
Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak.
Bazken koefizientea murriztea.
Hizlariak: Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailaren Zerbitzu Teknikoa.

12:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Bola-jokoa Kexaako bolatokian. Antolatzailea: Aiarako Bola Toki Kluba.

Maiatzaren 15ean "SAN ISIDRO eguna"

PIRINIOETAKO BEHI-AZIENDA HAUTATUAREN ARABAKO I. LEHIAKETA

08:00 - 10:00 Abereak jasotzea. / **10:00 - 11:00** Abereei azterketa egitea / **11:00 - 13:00** Abereak kalifikatzea **13:30** Sari banaketa

09:30 Euskal Herriko artisautza-produktuak erakustea eta saltzea.
10:30 **ARDI, AHUNTZ, ASTO ETA ZALDI ERAKUSKETA** (arraza: latxa). Ikusgai egongo diren abereak Abere Zerbitzu Teknikoak Koop.S.-ren bidez hautatuko dira.

Gainera, honako hauek ere izango dira: eskualdeko bertako oiloen erakusketa (zehazki, Aiarako Ander Beraza jaunarenak). Bestalde, makilen eta untxi erraldoien erakusketa egingo da (Okondoko Emilio Irazola jaunarenak).

11:00 **Haurrentzako gunea irekitzea** (traktore puzgarria eta borda puzgarria, esne-behia; umeek behia jezteko sentsazioa esperimentatuko dute).
12:00 Meza santua.
12:45 Herri-kirolen erakustaldia.
13:00 Tokiko eta eskualdeko produktuak dastatzea (gazta eta txakolina).Aiara udalerriko gaztandegiak. Zenbait txakolin-upategiren (jatorri-izendapena dute) aurkezpena.
20:00 Musika taldea: **LOBO&CARMINE** (Aiarako Udaleko Erabilera Anitzeko Aretoan)

GAINERA, EGUNEAN ZEHAR, HONAKO HAUEK EGONGO DIRA:
- Nekazaritzako makineriaren erakusketa.
- Tokiko musika.

Antolatzailea eta Babeslea

Aiarako Udala
A yuntamiento de A yala

Laguntzaileak

Vital gizarte ekintza obra social

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Zabaia
Aiara Haraneko Landa Garapenerako Elkartea
Asociación de Desarrollo Rural del Valle de Ayala

_herriz-herri

Laudio

Larrialdi-egoeran dauden pertsonentzako harrera-pisu bat izango du Udalak

ERREDAKZIOA I Lucía Menoyo

Gizarte zerbitzuek egindako azterketaren ondorioz Laudion harrera pisu bat izateko beharra ikusi du udalak. Udal jabetzako etxebizitzetariko bat erabiliko da horretarako, horrezkero udal zerbitzuek kudeatzen dutena eta egun hutsik dagoena.

Larrialdi egoeran dauden pertsona eta sendiei egonaldi laburra eskaintzea izango da pisuaren helburua, etxebizitzarik ez izateak dakartzan egoera kritikoei aurre egin ahal izateko. Genero indarkeriaren biktima izateagatik babesa behar duten emakumeei eta etxegabetzea pairatu dutenei zuzendutako beste pisu batzuk baditu Udalak eta beraz pisu berri hau ez da kasu horietan erabiliko.

4 hilabetez

Larrialdi pisu honetan egonaldiak 4 hilekoak izango dira gutxi gorabehera eta familia edo pertsona eta Udalaren arteko hitzarmen baten bidez arautuko dira.

Laudioko udal gizarte zerbitzuek izango dute pisu horretan hartzen diren pertsonak zaintzeko ardura eta dagozkien prestazio eta laguntzak jasotzekoa.

Etxebizitza erabiltzeko ez da baldintza administratibo jakinik behar, familia edo pertsona larrialdi egoeran dagoela dioen gizarte zerbitzuen diagnostikoa eta txostena nahikoa izango dira.

Orain Udala pisua altzariz hornitzen ari da eta ekainetik aurrera erabilgarri egongo da.

Gizon bat atxilotu dute indarkeria matxistagatik

Apirilaren 27ko gauerdian pertsona bat atxilotu zuen Ertzaintzak ustez bere bikotea erasotzegatik

Lekukoek azaldu zuten zaratak eta kolpe hotsak entzun zituztela bikotearen etxean eta horren erasotua izan omen zen emakumeak laguntza eskatu zuela. Laudioko udaltzainak eta ertzainak hurbildu ziren lekura eta azken horiek egin zuten atxiloketa.

Amurrio

Hobekuntzak egiteko paisaia plana esleitu du udalak 12.874 euroren truke

ERREDAKZIOA I

Amurrioko Udalak Paisaia Plana egiteko esleipena gauzatu du. 12.874,40 euro balio du eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak diruz lagundu du.

Udalak hilabete batzuen buruan bukatzea espero du eta bide batez Tokiko Ekintza Planean txertatzeko aukera izatea.

Eremuak

Paisaiaren esparruan aurretik egindako txostenean jaso zuten esku-hartzeko larrialdiko eremu batzuk badaudela Amurrion. Hilerriko inguruak, Larrabeko zabortegi zaharra eta Nerbioko ertzak -Abiaga, Orue eta Ugartebetxihain zuzen.

Aldi berean Letobe, Mendigorri, Goikomendi eta Eskorlan ere paisaiaren ikuspegitik hobekuntzak egin beharko liratekela adierazi zuen txostenak. Azpiegiturei dagokionez, Bilbo eta Valladolid lotzen duen oliobidean ere zenbait lan egiteko beharra nabarmendu zuen txostenak.

Hori guztia jasoko du garatuko den Paisaia Planak. Horren helburua aipatutako eremuak mantendu eta babesteko beharrezkoak diren lanak proposatzea, planifikatzea, kudeatzea eta jarraitzea. izango da

Josune Irabien alkateak azpimarratu du garrantzitsua dela hobetu behar diren eremuak kokatzea etorkizunean berreskuratu ahal izatea, "paisaia herriko ondare naturala ere baita".

Umeen kategoriako kartel lehiaketako sariak

Amurrioko Jaietako Kartel eta programaren Kontrazalerako lehiaketa bukatu da umeentzako kategorian.
Hori dela eta maiatzaren 8an sariak banatuko dituzte 20:00etan La Casonako erakusketa-gelan. Gainera lehiaketan aurkeztutako lanekin erakusketa zabalduko dute eta maiatzaren 30era arte egongo da ikusgai.

Okondo

Udal igerilekuetako taberna errentan hartzeko eskaintza ireki dute

ERREDAKZIOA I Kaitin Allende Zaldunbide

Okondoko udalak, igerilekuetako tabernaren errentamendurako epea luzatu eta baldintzak aldatu ditu. Bi uda sasoietarako izango da eta beste urte betez ere luzatzeko aukera eskaini du. Interesedunek, Okondon urte bat baino gehiago eraman behar dute erroldatuta. Horrez gainera, taberna hartzeko eskaintza itxitako gutun-azal batean aurkeztu beharko dute Okondoko Udaletxean maiatzaren 8a baino lehen. Bigarren aukera honetan, ez dute hasierako preziorik jarri, baina, interesdunek bete beharko dituzten baldintzen artean, taberna goizeko 11:00etan zabaltzea dago. Erantzukizun Asegurua ere kontratatu beharko dute. Gizarte Segurantzan dena eguneratuta izan beharko dute eta baldintza legalak bete beharko dituzte: lan arloko higienea, lan materiala, eta seguritateari dagozkien kontuetan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 16
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 21
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MAIATZAK 9
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 16
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 23
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 30
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 30
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

_herriz-herri

Aiaraldea

Urrian egingo du elkarteak urteurren ospakizun nagusia Aiaraldea.eus

Aiaraldea Komunikazio Leihoak 5 urte: "Bost eta bost, hamaika"

ERREDAKZIOA I Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Bost urte dira Aiaraldea Komunikazio Leihoa proiektua jendaurrean aurkeztu zenetik. Amurrioko Juan de Urrutia plazan egindako ekitaldi gogoangarrian "komunikazio leihoa" zabaldu genuen, eta ordutik hona ehunka boluntarioaren lan tematuari esker proiektua hasiz joan da etengabe, gaur egun garena bihurtu arte.

Euskara, komunikazioa eta herrigintza helburu genuen dozenaka pertsonen ekarpen txikiak josiz abiatutako proiektua handi egin da urteotan, haur txiki izatetik gazte osasuntsu bihurtzerainoko bidea eginez. 5 urte. Ez dira asko ez, baina ez dira gutxi ere.

Bost urte bete ditu Aiaraldea Komunikazio Leihoak bai, eta bide honetan hamaika izan dira gure elkarteak sustatu eta piztutako ekimenak eta tresnak. Gaur da egun euskararena dela eskualdeko komunikazio talderik handiena; eta hori, bost urteotan ehunka boluntariok egindako ekarpen gogoangarriari esker izan da, da eta izango da. Bide honetan web-gune soil eta txiki bat zenak forma hartu du, sareko erreferentzia komunikatibo indartsuena bihurtzeraino Urduñatik Arrankudiagara eta Artziniegatik Orozkora zabaltzen den eskualde eder honetan.

Web-gunea ez ezik, paperaren eta uhinen aldeko apustua ere gauzatu da urteotan. Aiaraldea Irratiak bestelako irratiekin kolaborazioan eta bakarka egindako bideak fruitu ederrak eta milaka grabazio ordu utzi zizkigun eta 2013aren hondarretan erronka berri bati heldu zion Aiaraldea Komunikazio Leihoak: Aiaraldea Egunkaria argitaratzen hasteko erronkari.

Gaztelaniaren erabateko nagusitasunari hordagoa bota, eta hamabost egunean behin euskarak betetzen ditu 10.000 lagunen etxe eta lantokiak. Boluntario eta langileen lan eskergari esker, euskarazkoa da Aiaraldean gehien zabaltzen den egunkaria. Bide horretan lagun izan ditugu eta ditugu oraindik ere eskualdeko ikastetxeak, aurrerantzean elkarlan estuagoan aritzeko erronkari heldu nahi diogu orain, euskararen komunitatea handiagoa, aberatsagoa eta ederrago bihurtzeko.

Komunikabideez gainera, ehunka izan dira bost urteotan euskararen bueltan bakarka zein elkarlanean antolatu ditugun jarduera eta ekimenak; izan udako argazki -postal digitalen lehiaketak, Amurrio Antzokiko ikuskizunak, Udazkeneko multimedia eskoletako tailer, rally, mahai-inguru edo hitzaldiak, eta kontaezinak zaizkigun euskara sustatzeko ekimenak.

Egindako bidearekin eta emaitzarekin harro gaude.

Ospakizun jai nagusia, urrian

Aiaraldea Komunikazio Leihoarentzat eta proiektu hau osatzen dugun guztiontzat ospatzeko urtea izango da hau, maite dugun jendearekin eta lurraldearekin ospatzeko urtea. Urtea bukatu bitartean hemendik eta handik barreiatuko ditugu ospakizun ekitaldiak, herri eta auzune txikietan euskararen eta komunikazioaren kolorea zabaltzen arituko gara, txikiak eta gertukoak duen garrantziaren jakitun.

Baina herriz-herrikako ekitaldi horiez gainera, jai erraldoi batekin ere ospatu nahi ditugu 5 urte hauek. Zer eta aurrera begirako erronka eta proiektu ederrei heltzeko zure bostekoa bilatzeko. Urrian izango da, urriaren hasieran hain zuzen ere, eta kantatu, dantzatu, barre egin eta amesteko eguna izango da, Aiaraldea euskaldun eta berri baten alde amestu eta bat egiteko eguna.

_udal-hauteskundeak

www.aiaraldea.eus web-gunean elkarrizketatutako HAUTAGAIAK

JOSU SAN PEDRO
Orozkoko ADIE

"Orozkoko jendeak badaki beti egia esan diogula"

BEATRIZ IZAGIRRE
Amurrio Guk Bai

"Udala eta herritarren arteko harremanak urrun daude"

EVA BLANCO
Amurrioko EH Bildu

"Politika egiteko eta kudeatzeko eredu berria behar dugu"

IRENE NOVALES
Amurrioko PSE-EE

"Jendeak ez du barkatzen bete ezin diren gauzak agintzea"

JABI ASURMENDI
Arakaldoko EH Bildu

"Nahiz oposizioan egon saiatu gara gobernuan konprometitzen"

IRAIDA SAENZ
Aiara Batuz

"Gure ekarpena gehiengo absolutuekin bukatzea izan da"

ZIGOR GOROSTIAGA
Orozkoko EH Bildu

"Lehenengo sektoreko jarduera ekonomikoak sustatu nahi ditugu"

ITZIAR CAMINO
Okondoko EH Bildu

"Partaidetza eta gardentasuna lehenetsi nahi ditugu"

JOSU ARTETXE
Aiarako EH Bildu

"Nabaritu egin da kudeaketa aldaketa 4 urte hauetan"

Elkarrizketak osorik eta udal-hauteskundeen gaineko informazio zabala orrialde berezian ikusgai: emaitzak, zerrendak, argazkiak...

_jendartea

ESKALEEKIN HIZKETAN

“Elkarrizketa egitearekin ados. Baina gero lana emango didazu?”

Supermerkatuen sarreretan, elizetan edo kale bazterretan egon ohi dira, ikusezin. Kalean dirua -edo, kasu batzuetan, janaria eta arropa- eskatzera derrigortuak izan diren langileak dira. Eurengana jo dugu.

Lau eskalerekin hitz egin dugu. Argazkia: aiaraldea.eus.

ERREDAKZIOA I

Ostegun eguerdia da, Laudion. Kalera atera gara, argazki-kamara eta grabagailua eskutan, eskale bati elkarrizketa egitea xede[1] hartuta.

Ez ditugu pauso asko eman behar izan lehena topatzeko. 40-50 urte inguru izango dituen gizonezko bat da. Udaletxe zaharreko paretaren aurka dago, belauniko. Aurrean duen kartoizko kartelean letra handi beltzez dago idatzita bere egoera: karabana batean bizi da, hiru seme-alabekin. Semeetako baten argazkia du kartelean itsatsirik. Eta arropa eta jakiak ere onartzen ditu.

Goibel[2] egin digu irribarre berarengana zuzendu garenean. Aiaraldea egunkariko kazetariak garela eta bere egoerari buruzko elkarrizketa bat egitea gustatuko litzaigukeela azaldu diogu. Penaz begiratu gaitu, eta ondorengo hitzak zirriborratu ditu: “Ez naiz hemengoa. Ez dut hemengo hizkuntza ulertzen”.

Harekin komunikatzeko hainbat saiakera egin dugu, baina alferrik. Altxatu eta plaza zeharkatu dugu, ezagutzen ez duzun hizkuntza batez inguratuta bizitzeak zer suposatu behar duen irudikatzen saiatzen garen bitartean.

Laster ekin diogu bigarren saiakerari: supermerkatu aurrean dagoen gizon beltz gaztea. Irribarre egin du elkarrizketaren ideia proposatu diogunean. “Ados elkarrizketa egitearekin. Baina gero lana emango didazu?”. Egunkari baterako elkarrizketa dela zehaztu behar izan diogu, ez lan-elkarrizketa bat. Irribarrea ezabatu zaio orduan. “Ez”, erabaki du, “ezin diot lan egiteari utzi”. Serio, baina jator, azaldu digu bere egoera: “Goizean goiz Lanbidera noa, lan bila. Eta bertan lanik ez dagoela esaten didatenean nator hona”. Lepotik eskegita duen kartoizko kartela erakutsi du. Lan bila dagoela zehazten du bertan. “Supermerkatuetan, dirua ematen dizun jendeaz gain, enpresa askotako buruak ere pasatzen dira”.

Elkarrizketa egiteak lana aurkitzen lagundu ahalko liokeela iradoki diogunean, irmo errepikatu du bere erabakia: “Ez, hori egin eta gero inork lanik ematen ez badit, etsitu egingo naiz. 28 urte dauzkat, eta jada zortzi daramatzat langabezian”.

“Do you speak English?”

Eroskira joan gara orduan. Bertan topatu dugu hirugarren eskalea. Aurrekoa baino helduagoa dirudi, baina Afrikatik etorria da baita.

Aurreko biei esandako gauza bera esan diogu honi ere. Lehenengoan ulertu gaitu: “Ez, nahigo dut ez egin”. Joatera gindoazenean itzultzeko seinalea egin digu eskuarekin. “Do you speak English?”, galdetu digu. Ingelesez ote dakigun, alegia. Guk baietz, eta gure ingeles kaxkarrean egin diogu berriz elkarrizketa proposamena. Pentsakor geratu da. “No. Another day maybe”. Ezetz, beste egun batean akaso.

> “Goizean goiz Lanbidera joaten naiz lan bila, eta lanik ez dagoela esaten didatenean etortzen naiz hona”

> “Niri ez zait elkarrizketarik egitea komeni, errefuxiatu politikoa naiz”

Erredakziora bueltan goazela topatu dugu gure azken saiakera izango dena. Ezagutzen dugu: gizon afrikar heldua. Bilbotik datorren trenetik jaisten da ostegunero, eta egunkaria banatzen gaudenean “Egunon” esan eta ale bat hartzen digu, irribarretsu. Liburu lodi bat irakurtzen dago orain. Irribarre egin du ikusi gaituenean. “Gaur ez zaituztet ikusi”, esan digu. “Gaur ez gara egon”, gure erantzuna. “Egunkaria ez da astero banatzen, bi astean behin baizik”, azaldu diogu.

Bi astean behin hartzen duen egunkari horretarako elkarrizketa bat egin nahi diogula azaldu diogunean, zera erantzun digu: “Ez zait elkarrizketarik egitea komeni, errefuxiatu politikoa naiz eta”. Tarte batez harekin hitz egiten egon ostean, eskua emanaz agurtu dugu elkar.

Kamara eta grabagailua erabili gabe itzuli gara erredakziora. Baina ondorio bat badaramagu buruan iltzatuta[3]: Kalean dirua eskatzera behartuak dauden langileek ez dute ez titular handirik ez argazki ikusgarririk behar sinesgarriak izateko.

Hiztegi lagungarria

Xede[1], helburu / Goibel[2], triste/ Iltzatuta[3], itsatsita

Isabel
Boveda
LAUDION BIZI GARA

_Hankamotz

Erantzuleak

Asko hitz egin da azken hilabeteetan Mediterraneoan geratzen ari diren tragediei buruz, euren jatorrizko herrietan dauden gerra eta miseriatik ihes egiten duten milaka immigranteen heriotzari buruz. Borondate onarekin askotan, herrialdeei exijitu egiten zaie errekurtso gehiago jartzea martxan immigranteak hobeto zainduak izan daitezen eta euren asilo eskubidea bermatua izan dadin.

Aipatutako horiek eskakizun guztiz betegarri eta bidezkoak diren arren, behin betiko soluzioa bat bilatzen badugu beharrezkoa da arazoaren muinera jotzea. Egoera hori erreproduzitzearen erantzule zuzenak direnak salatu behar dira. Luxenburgon edo Europako beste hiribururen batean ezkutatzen dira, topaketa politiko dotoreetan, arazoak soluzioak bilatzeko asmoz. Arazoa bakarra da beraientzat: Europan milaka pobre sartzea, lagundu nahi dituztela modu hipokrita batean esanda. Egiatan, euren jatorrizko herrialdeetara modurik azkarrenean eta inolako garantiarik gabe itzultzera behartzea da bilatzen duten gauza bakarra.

(...) Lagundu behar da arriskuan dauden bizitza horiek salbatzen, baina ez gaitezen engaina: dena alferrik izango da ez badugu exijitzen eta defendatzen herrialde, herri eta kultura bakoitza errespetatua izatea. Ez badugu NATOren, Europar Batasunaren, Estatu Batuen eta baita Estatu Espainiarraren erantzukizuna salatzen. Bakoitzari dagokion neurrian, gerra eta desegonkortasunaren sortzaile ontzi eta pateretan alde egin behar duten pertsonen herrialdeetan. Hori da kontatzen ez diguten egia.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK


3D ERRADIOGRAFIAK

Etxerako argindarra eskuratzeko gero eta gehiago erabiltzen dira haize-errota txikiak. Argazkia: Mike Boening (CC-BY-SA)

Gaur egungo energia eredua ez da sostengarria. Hori diote adituek. Petrolioa bezalako erregai fosilak agortzen ari dira, eta geroz eta teknika bortitzagoak erabili behar izaten dira energia ustiatzeko, *fracking*-a kasu. Horren aurrean, energia berriztagarriak eta subiranotasun energetikoa bezalako kontzeptuak ari dira protagonismoa hartzen. Baina horretarako erabiltzen den energia kopurua maila sostengarri batera eraman behar dela aldarrikatzen dute adituek, eta horretarako kontsumoa jaitsi behar da.

Energia Aiaraldean
Eredu berri baten beharra aztergai

ERREDAKZIOA | | Txabi Alvarado Bañares

Gora doa energia kontsumoa. Eta ez dirudi aldatzeko asmoa duenik. Hemendik 25 urtera energia kontsumoan %37ko igoera gertatuko dela aurreikusten du Energiaren Nazioarteko Agentziak. Horrek geroz eta errekurtso gehiago ustiatu behar izatea dakar. Testuinguru horretan ugaritzen dira *fracking* eta antzeko ustiatze sistemak: Lehen porositate txikiko arroketatik baino ez zen gasa ateratzen, kareharritik edo harehar-ritik, adibidez. Orain, baina, ez da horren erraza horrelako arroketan gasa topatzea, eta horregatik ekin zaio porositate handiagoa duten arroketatik ustiatzeari[1], askoz bortitzagoa eta errentagarritasun gutxiagokoa den haustura[2] hidraulikoa erabiliaz.

Gauzak hala, ez dira gutxi gaur egungo energia eredua sostengarria ez dela diotenak. "Gaur egun denok dakigu petrolioa amaitu egingo dela", baieztatu du Urko Izquierdo ingeniari kimiko amurriarrak. Baina aipatu du badaudela alternatibak. Hidrogenoaren ekoizpenean oinarritu du Izquierdok bere doktorego tesia, eta ziurtatu du munduko hainbat herrialdeetan badaudela jada[3] hidrogenoz dabiltzan autoak. "Hurrengo pausoa hidrogenoa eskaintzen duten lekuak

Urko Izquierdo
Ingeniari kimikoa

"Sostengarriak ez diren energia kontsumo batzuetara ohitu egin gara"

"Energia berriztagarriak ez dira nahikoa gaur egungo kontsumo maila asetzeko. Gutxiago kontsumitu behar dugu derrigor"

jartzea izango litzateke, gasolindegien modukoak", azaldu du. Izquierdoren esanetan, hidrogenoak badu abantaila handi bat gasolinarekiko: "erregai moduan erabilita, oxigenoarekin konbinatuta ura sortzen duen elementu bakarra da".

Naturaren indarra

Aiaraldean ere badaude alternatibak. Estatistiken arabera, handitu egin da energia berriztagarrien ekoizpena. Amurrion, adibidez, 2010an 501.882 Kwh (Kilowatt orduko) ekoizten ziren 2010ean, Udalak eskainitako datuen arabera. 2013rako, baina, 944.291 Kwh -ra igo zen kopurua. Hala eta guztiz ere, proportzioan oso kopuru txikia izaten jarraitzen du, urte berean 315621661 Kwh kontsumitzen baitziren herrian. Hau da, herrian bertan ekoiztutako berriztagarriak elektrizitate kontsumo osoaren %0.3a baino ziren.

Hala ere, ugariak dira Aiaraldean ustiatu ahalko liratekeen energia berriztagarriak. "Aukera bat hondakin organikoak erabiltzea izango litzateke", azaldu du Izquierdok, "biomasaren pirolisia edo gasifikazioa eginez (tenperatura altutan egiten den deskonposizioa), berriztagarria den energia-iturri batetik energia sostengarri ugari sortu ahalko lirateke. Gainera, biomasaren des-

Iñaki Garaio Egia
BaiWind-eko kidea

"Arazoa ez da energia berriztagarriak bai ala ez. Lehen gakoa da ea norena izango den energia hori"

"Badago bere ortua daukan jendea. Zergatik ez egin gauza bera energiarekin?"

konposizio anaerobioaren bitartez (oxigenorik gabeko deskonposizioa) biogasa lortzen da, eta biogasa erregai moduan edo hidrogenoa lortzeko erabili daiteke".

Eguzki-energiari dagokionez, Izquierdok adierazi du ez dakiela Aiaraldean edo Euskal Herrian eguzki energia asko dagoen, baina gaineratu du "asko eta oso ondo aprobetxatu" daitekeen iturria dela.

Energia berriztagarriak sustatzeko Euskal Herri mailako proiektu aipagarri bat GoiEner kooperatibarena da. "Energia berdea" hornitzea du xede, eta bazkide ugari ditu Aiaraldean.

Haizetik eratorritako energiaren kasuan, baina, badago adibide bat Aiaraldean bertan: BaiWind. Eolikoak jartzen ditu enpresa horrek, baina ez mendizerretan ikusi daitezkeenak bezalakoak. Mini-eolikoak egiten dituzte, etxebizitza, lantegi zein bestelako eraikinetan autonomoki funtzionatzeko modukoak. Hainbat tamainatako eolikoak eskaintzen dituzte, haizearen indarraren arabera bata edo bestea jartzeko aukera izateko. Euskal Herriko hainbat txokotan jarri dituzte, eta baita atzerrian ere, Indian adibidez.

Zer baino, nork

BaiWind-eko sortzaileetako bat

den Iñaki Garaio laudioarrak argi du etorkizuna energia berriztagarrietan datzala. Baina Garaiok azpimarratu du zer nolako energia ekoizten denetik harago, energia nork ekoizten duen zehaztean datzala gakoa[4]. Bere iritziz, energia-ekoizpen deszentralizatu baterantz joan beharko luke jendarteak. "Kapitalaren zein beste edozein elementuren zentralizazioa txarra den bezala, energiaren zentralizazioak ere arazo asko sortzen ditu". BaiWind-eko kideak azaldu du ekoizten den energiaren %15-20 inguru energia horren garraiorako erabiltzen dela. "Energia kontsumitzen den lekuan ekoiztuko balitz, ez litzateke gastu hori egongo". Bestetik, energia kontsumitzen den tokian ekoiztuko balitz, tokiko lanpostu asko sortuko liratekeela defendatu du Garaiok. "Ez dakit zergatik ez den Energia Subiranotasunaren gaineko diskurtso bat eratzen[5] hasi, elikadura burujabetzarekin egin den bezala".

Baina, posiblea izango litzateke energia subiranotasuna lortzea Aiaraldean, eta energia berriztagarriekin soilik? Garaiok baietz uste du, nahiz eta aitortu duen %100ean lortzea zaila izango litzatekeela. "Herrien behar energetikoak ikusi eta horien araberako energia iturriak bilatu beharko lirateke". BaiWind-eko kideak azpimarratu du energia berriztagarri guztiak direla elkarrekiko osagarriak, "ezin da plan-teamendu bat energia mota bakar batekin egin". Garaioren hitzetan, jendartea "energia erostera" dago ohitua, baina krisia hasi zenetik geroz eta argiago ikusten da bestelako aukera batzuk daudela. "Badago bere ortu propioa egiten ari den jendea. Zergatik ez egin gauza bera energiarekin?".

Kontsumoa jaitsi beharra

Herri txikiz osatua dago Aiaraldea, eta horrek agian posible egingo luke halako subiranotasun ahalegin bat aurrera eramatea herrietan. Baina horrek ez du esan nahi eskala handiago batean hori posiblea izango litzatekeenik. "Oso kontsumo altuetara ohitu egin gara, sostengarriak ez diren kontsumo batzuetara, kapitalismo bortitz honek bultzatzen duen kontsumo eredua-gatik", azaldu du Izquierdok, eta gaineratu du kontsumo altu horiek betetzeko energia berriztagarriak ez liratekeela nahiko izango.

Alternatiba bakarra, energia nuklearra erabiltzea. "Ni ez nago batere ados energia nuklearra erabiltzearekin", ziurtatu du ingeniari amurrioarrak, "baina kritikoak izan beharko ginateke, eta gaur egun ditugun kontsumo mailak murrizten[6] saiatu". Horretarako, hezkuntzan eragin behar dela uste du Izquierdok. "Umetatik hasita, aiton-amonetara arte, saiatu behar dugu gaur egun erabiltzen diren energia kopuruak murrizten". Beharrezkotzat du Izquierdok horri ekitea. "Komunikabide batean ikusi nuen txinatar askok ez dutela izarrik ezagutu, zeruan dagoen kutsaduragatik ez dituztelako ikusten, eta hori oso tristea da".

Ekoizten den energiaren %15-20 inguru energia hori kontsumituko den tokiraino garraiatzeko erabiltzen da. Energiaren tokian tokiko ekoizpena emango balitz, ez litzateke halako gasturik emango.

Hiztegi lagungarria

Ustiatu[1], esplotatu / Haustura[2], apurketa / Jada[3], dagoeneko / Gakoa[4], klabea / Eratu[5], sortu, osatu / Murriztu[6], txikitu

"EOLIKOAK BAI, BAINA EZ HORRELA": 2011 eta 2012 urteen artean eman ziren Jesuri eta Ganekogorta mendietan eolikoak eraikitzeko proiektuaren aurkako mobilizazioak. Eolikoak jartzeak eragingo lukeen kalte ekologikoa azpimarratu zuen mugimenduak.

Eguzkia, iturri ez horren oparoa Aiaraldean

Basamortuko klima da egokiena eguzki-plakak jartzeko. Horregatik, ondorioztatu daiteke Aiaraldea ez dela lekurik egokiena eguzki erradiaziotik eratorritako energia ustiatzeko. Badaude hori argi uzten duten zifrak: Europar Batasunak eguzki erradiazioa aztertzeko ateratako aplikazio baten arabera, Laudion 1080 Kwh-ren (Kilowatt orduko) baliokidea izango litzatekeen eguzki erradiazioa jasoko luke eguzki plaka estandar batek. Iruñan, baina, zifra hori 1730 Kwh-ra igotzen da, eta 2180ra Andaluzian.

Hala eta guztiz ere, aukera egongo litzateke eguzkitik eratorritako energia baliatzeko. Baina ez luke, seguru asko, herri baten subiranotasun ekonomikorako balioko. Europar Batasunak ateratako aplikazio horrek dionaren arabera, Arakaldo bezalako herri txiki batean 531 eguzki plaka estandar jarri beharko lirateke etxeetako elektrizitate kontsumoa asetzeko. Baina Iñaki Garaiok azaldu du energia iturri egokia izan daitekeela eolikoarekin konbinatzen bada, "neguan eguzkiaren ordez haizea egongo delako".



Haizetik eratorritako energia bai, baina nola?

Aiaraldean polemika handia egon da energia eolikoaren harira. 2011-2012 urteetan hainbat mobilizazio egin ziren eskualdean Jesurin eta Ganekogorta mendietan eolikoak eraikitzeko proiektuen aurka. Horren eoliko handiak mendian eraikitzeak ekarriko lituzkeen kalte ekologikoak salatzen zituzten.

Nola uztartzen da diskurtso hori energia berriztagarrien aldeko diskurtso batekin? Urko Izquierdo Ingeniari kimiko amurrioarrarentzat, zaila da iritzi kritiko bat garatzea. "Alde batetik, energia berriztagarriak nahi ditugu, baina ez ditugu hemengo mendietan nahi. Ni ez nago proiektu horren alde". Alternatiba? "Eolikoak itsasoan jartzea aukera bat izan liteke".

Baina energiaren garraiorako ekoizten denaren %15-20 inguru erabili behar da. Horregatik, beste aukera bat mini-eolikoak izan ahalko lirateke, BaiWind-ek ekoizten dituenak bezalakoak. Energia kontsumitzen den tokian bertan jarri ahalko lirateke, kalte ekologikorik sortu gabe. Baina Baiwind-eko kidea den Iñaki Garaiok azpimarratu du mendietan jartzen diren eolikoen kasuan arazoa ez datzala eolikoetan soilik. "Lehen arazoa da ea norena izango den energia hori. Herrira kanpoko enpresa bat baldin badator mendia esplotatzera eta energia kanpora eramatera aurka egongo naiz".



Hidrogenoa: Erregai eta energia korrontea

Oso energia errentagarria kontsideratzen da hidroelektrikoa. Urtegi eta eta antzeko azpiegituretan urak daukan korrontea baliatu egiten da turbina bati eragin eta horrela elektrizitatea sortzeko. Eta kontuan hartzekoa da sistema horren bidez ekoizten den energia kopurua: estatu espainiarrean ekoizten den energia elektrikoaren %18 inguru sortzen da horrela. Antzeko zerbait gertatzen da Araban: probintzia 2012an ekoitzi zen energiaren %13,6a hidroelektrikoa izan zen.

Erregai gisa

Energia sortzeko baliabide moduan soilik ez, erregai moduan ere erabili daiteke hidrogenoa. "Hyundaik martxan jarri du dagoeneko hidrogenoz dabilen lehen auto elektrikoa, eta oso ondo funtzionatzen du", ziurtatu du Urko Izquierdok, eta gaineratu du enpresa horrek auto mota horren patenteak zabaldu dituela eta beste marka batzuek ere halakoak fabrikatzeari ekingo diotela. Gauzak hala, ingeniari kimiko amurrioarraren hitzetan, hidrogenoa "zeregin garrantzitsua" betetzera doa datozen urteetan energiaren alorrean.

Zabor hutsa baino askoz gehiago

Uste baino gauza gehiagotarako aprobetxatu daitekeen zerbait da zabor organikoa. Konposta egiteko balio du, baina baita energia sortzeko ere. Hainbat teknika daude horretarako. Pirolisiarekin, adibidez, oxigenoa kenduta biomasa deskonposatu daiteke, eta modu horretan energia sortu. Gasifikazioaren bidez, berriz, elektrizitatea lortu daiteke, biomasa erregai gaseoso bilakatuta.

Aiaraldean martxan

Horretarako hondakin organiko ugari bideratu behar dira energia sortzeko. Baina Aiaraldean hasi dira horri begira pausoak egiten. Iaz zabor organikoa (animalia eta landareetatik eratorritako hondakinez soilik osatutakoa) jasotzeko 31 edukiontzi jarri zituen Aiarako Koadrilak, eta 500 familiari eman zitzaizkien ontzi horiek ireki eta bertan etxeko hondakin organikoak sartzeko giltzak.

Bertan pilatutako zabor guztia Gasteizko Udalaren biomekanizazio fabrikara eramaten da, eta konposta egiten da bertan. Enpresa horrek biogasa sortzen du jasotzen duen material organikoarekin, eta urtean 6.000.000

_kultura

AMURRIO ANTZOKIA

Hamar urte beteko ditu maiatzean Aiaraldeko antzoki bakarrak

2005an inauguratu zen Amurrio Antzokia, Lavire zinema zegoen tokian. Ordutik hona kultur eskaintza zabala eskaini da bertan, zinemari eta arte eszenikoei lotuta, gehienbat. Maiatzaren 23an ospatuko da X. urteurrena

ERREDAKZIOA | | Txabi Alvarado Bañares

Badaude antzeko funtzioak betetzen dituzten azpiegiturak: Orozkoko Donibane Aretoa edota Laudioko LHUIko aretoa. Baina, hala eta guztiz ere, Amurriokoa da Aiaraldean dagoen antzoki bakarra. Urteak daramatza, gainera, hala izaten, hamar urte beteko baititu maiatzean.

2002an bota zen 1992tik itxita zegoen Lavire zinema. Orduan ekin zitzaion lur-eremu[1] horretan antzoki bat eraikitzearen proiektua gauzatzeari. Eraikin berean garajeak, merkataritza lokalak eta etxebizitzak ere egokitu ziren, eta horrela lortu zen antzokia eraikitzeko dirua. 2.316.099 euro baliatu ziren horretarako.

2005eko maiatzean loratu zen ereindako hazia: mila metro koadro baino gehiagoko kultur ekipamendua, 335 ikuslerentzako espazioarekin.

Bi multzotan banatzen da antzokiaren kultur eskaintza: alde batetik, zinema eskaintza dago. Bestetik, arte eszenikoei loturikoa.

"Ez da dirurik irabazten"

Antzokia martxan jarri bezain laster ekin zitzaion bertako kultur eskaintza zehazteari. Aldaketak aldaketa, bi multzo handitan banatzen da programazioa, Kontxesi Elejalde kultur teknikariaren esanetan. "Alde batetik zinema eskaintza dago eta, bestetik, arte eszenikoena", zehaztu du teknikariak.

Zinema urritik maiatzera arte eskaintzen da, igande eta astelehenetan. Horrela, filmak ikustera doan publiko bat sortu dela azaldu du Elejaldek. "Emanaldi bakoitzeko 100 lagun edo gehiago gerturatzen dira". Arte eszenikoen eta euskarazko emankizunen kasuan, baina, publikoa txikiagoa dela aitortu du teknikariak.

Krisiak ere eragina izan duela gaineratu du Elejaldek. "Erakunde guztiek euren aurrekontuak egokitu behar izan dituzte, eta baita guk ere". Gauzak hala, urtean hiru denboraldi izatetik bi izatera pasa da antzokia, baina Elejaldek ziurtatu du ez dela horrenbesteko aldaketa izan, eta azpimarratu du udalak ez duela antzokiarekin dirurik irabazten, "beste gauza batzuk irabazten dira, neurtu edo kontabilizatu ezin daitezkeenak".

Maiatzaren 23an izango da antzokiaren urteurrenaren ospakizuna. Amurrioko hainbat dantza taldek prestatutako ikuskizuna taularatuko[2] da egun horretan. Egun hori igarota, orain arte bezala lan egiten jarraitzea da asmoa, kultur teknikariaren arabera. "Ez da bat -bateko aldaketarik egingo. Egokitzen[3] joango gara, hamar urte hauetan zehar egin dugun bezalaxe.

Hiztegi lagungarria

Eremu[1], espazio, gune / Taularatu[2], eszenifikatu / Egokitu[3], moldatu

_sorrera

2002
urtean bota zen Lavire zinema. Lur eremu horretan eraiki zen, hiru urte geroago, antzokia.

2.3
milioi euroko kostua izan zuen proiektuak. Udalak finantzatu zuen.

335
ikuslerentzako tokia du antzokiak.

Argazkiak: Aitor Agorria

23.607
ikusle izan zituen antzokiak iaz.

Mikel
Ayllon
IDAZLEA

_Kamerinoa

Kultur erreken alde

Kalea garbitu behar badugu, bi erratz ziztrin baino eraginkorragoa den zerbait eskatu diogu nagusiari. Gure bizkar zahar konkortuek merezi dute horrenbeste.

Eta hemen gaude Mari eta biok, eguna oraindik argitzeke, kalea garbitzeko traste honetan sartuta, bolanteari helduta bera, kopilotu lanetan ni.

-Mari, ikusi dituzu hormetako kartel horiek guztiak? –galdera inozoa izan da, noski, inguratuta baikaude botoa eskatzen diguten aurpegi irribarretsuz- Egunero ari zaizkigu horiek esan eta esan zer garrantzitsua den kultura, zein beharrezkoak diren sortzaileak, zein funtsezkoak kultur azpiegiturak, eta kultur olatuak, eta kultur itsasoak eta kultur ozeanoak…

Zerumugan lehen eguzki -printza agertzearekin batera ikusi dugu kalean behera bilintzi-balantza datorren gaztea, garagardo botilatxo erdi hustu bat eskuan, azken taberna ixteko jarriko zuten Laboaren abesti ilun baten notak oihukatuz.

Guri eta gure trasteari begiratu gabe, boto eske kartelez jositako hormaren kontra bermatu da, prakak eta kuleroak jaitsi ditu, kokoriko jarri, eta hortxe bertan egin du txiza, kalearen erdian.

Ahoa bete hortz begiratu diot Mariri.

-Hortxe daukazu paretako jende-modu irribarretsu horrengandik jaioko den kultur erreka bakarra –esan dit, eta azeleragailua zanpatu du amorruz.

_kultura

MUSIKA:

Iñaki Plaza musikari urduñarrak bere azken lanaren zuzeneko DVDa argitaratu du

Iñaki Plaza musikari urduñarrak lan berri bat argitaratu du: bere kontzertu baten zuzeneko grabaketa jasotzen duen dokumentala, Amurrioko Antzokian grabatutakoa. Zuzenekoaz gain, lan berria erosten duenak Plazaren "Ekhi" lana eta zenbait eduki gehiago topatu ahal izango ditu kutxan.

ILUSTRAZIO LEHIAKETA:

Laudioko Keska tabernaren ilustrazio lehiaketan parte hartzeko epea ireki da

Ilustrazio lehiaketa antolatu du Keska tabernak. Tabernako giroa, musika, garagardoak... izan behar du marrazkien gaiak. Epaimahai batek hautatuko ditu tabernan ikusgai egongo diren lanak, eta herritarren bozkekin hautatuko da irabazlea. Oinarriak keskamiseta.tk webgunean kontsultatu daitezke.

LITERATURA:

Txani Rodriguezek "Ez naiz barazkijalea, eta zer?" ipuina maiatzaren 15ean aurkeztuko du

Txani Rodriguez idazle laudioarrak umeentzako liburu berri bat argitaratu du Elkar argitaletxearen "Eta zer?" sailean. "Ez naiz barazkijalea, eta zer?" da liburuaren izenburua, eta Iosu Mitxelenak ilustratu du. Rodriguezek maiatzaren 15an aurkeztuko du liburua Laudion, 18:00etan liburutegian.

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

Negociador

Zuzendariak: Borja Cobeaga
Aktoreak: Ramón Barea, Josean Bengoetxea, Carlos Areces...
Iraupena: 80 minutu

Bada politikan umorearentzako tokirik? Eta euskal gatazka latzean? Abiapuntu honetatik, Borja Cobeaga, zuzendari eta gidoilari gipuzkoarrak, bere lan gehienak bideratu ditu. Vaya semanita saioaren sorreratik, Negociador filma estreinatu arte.

Bi gizon etxetik oso urrun. Hotel xume batetik atera gabe. Egunero ikuspuntuak aurkezten eta eztabaidatzen, adostasun puntu batera heltzeko itxaropenarekin. Urduritasuna, larritasuna, tirabirak. Mahaia gainean akordio bat aurkezteko zailtasunak. Horrela deskribatu daitezke 2005 eta 2006a bitartean ETA-k eta espainiar estatuko ordezkariak mantendutako bilerak. Baina, non da egoera horretan umorea? Ba, mahaitik altxatzean bi pertsona horiek bizitzen dituzten eguneroko une arruntetan. Eta hori da, Borja Cobeagak Negociador pelikula interesgarri honetan aurkezten diguna. Aipatzekoa ere, Ramon Barea eta Carlos Arecesek burutzen duten lana. Filmaren pisua euren sorbaldetan tinko mantentzea lortzen dute.

Ez da umore erraza, ikatza bezain beltzagoa baita. Dibertigarria eta hunkigarria aldi berean. Askotan, Stanley Kubrick-en ¿Telefono rojo? Volamos hacia Moscu gogora dezake. Pertsonala bezain bikaina, ez da ikusle guztien gustukoa izango, baina ikusi gabe epaitzea ere pena bat izango litzateke.

Amurrioko Antzokian proiektatuko da filma, maiatzaren 17 eta 18an.

ZINEMA

Casting-a egingo dute Artziniegan *Gernika* filma grabatzeko

Filmeko hainbat eszena grabatuko dituzte Artziniegan, ekainaren 11tik 13ra. Gernikak sufritu zuen bonbardaketa irudikatuko da. Koldo Serrak zuzenduko du.

Filma-proiektuaren kartela argitaratu dute dagoeneko.

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi Kastrexana

Koldo Serrak zuzenduko duen *Gernika* filma Artziniegan grabatuko da. Herria bisitatu ostean, bertako alde zaharreko kaleak 1937. urteko Gernika irudikatuko dutela erabaki zuten filmeko arduradunek. Hala adierazi du Mikel Saldisek, filmeko ekoizpen laguntzaileak.

Grabaketak, Artziniegan, lau egun iraungo dituela aurreikusi da. Ekainaren 11tik 13ra egitea espero da. Laugarren eguna zehazteke dago.

Egun horietan, Gernikak sufritu zuen bonbardaketa irudikatuko da eta, hortaz, leherketa kontrolatuak egingo dira.

Casting-a, Artziniegan

Castinga pasa den asteburuan egin zen Bilbon, eta asteazkenean Barakaldon beste bat egin zen, bertan ere grabatuko delako filma.

Horren harira[1], Mikel Saldisek emandako azalpenak entzutera joan zen jendeak Artziniegan ere casting bat egitea eskatu zion ekoizpen laguntzaileari.

Herritarren iritziak entzun ostean[2], Artziniegan castinga egingo dela ziurtatu dute. Nahiz eta data zehaztu gabe egon, grabaketa baino aste batzuk lehenago egitea espero dute, maiatzaren amaiera aldera. Filmaren grabaketan hainbat aktore famatuk parte hartuko dute hala nola Maria Valverde, Victor Clavijo, Irene Escolar, Alex Garcia eta Barbara Goenaga. Artziniega ez ezik, Lekeitio, Barakaldo, Gorbeialdea eta Gernika bera ere bisitatuko dituzte.

Hiztegi lagungarria

Harira[1], horrekin erlazionaturik /Entzun ostean[2], entzun eta gero

Izatefaltsua taldeak disko berria kaleratu du

ERREDAKZIOA | Endika Diaz

Izatefaltsua metal talde amurrioarrak *Zaratak agindu dezan!* izenburuko disko berria kaleratu du, zortzi urteko ibilbidea egin ostean.

Hbio taldeko kide ohiek 2004. urtean sortu zuten Izatefaltsua, metal berria estiloa jorratzeko asmoz, Eraso edota Machine Head taldeen influentziapean. Proiektu berriak 2007. urtean ikusi zuen argia beren lehenengo diska izan zenarekin; *Adi!* izena zuen. Gaizka eta Pato ziren, hurrenez hurren, giitarrista eta abeslaria, baina proiektua nabarmen aldatu da azken urteetan.

Hamar kantuk osatzen dute taldearen lan berria eta Urduñako Konjuntibitis estudioetan grabatu dute Javi Palacios teknikariaren gidaritzapean. Nahasketei dagokionez, Izatefaltsuak Tolosako Bonberenea estudioetara jo du oraingoan, non Karlos Osinaga "Txap" teknikari ospetsuak gidatu dituen nahasketak eta masterizazioa.

Diskoaren azala.

Mateo Pagazaurtundua
IRAKASLEA

_Lurpetik

Apur bat "pikatua"

Roman Polido pertsona on-on hutsa omen zen, lehengo berba eguneratuz, gizajo bat zela esaten zuten hangoek eta hemengoek. Laudioko enparantzan Miguel Urkijo Marurik goxo-denda, okindegia, taberna eta abar dena bat eginik zeukan, eta, taberna trust horretara hurbiltzen zen maiz gure Romantxo. Txantxak egitea gizajoen kontura ohikoa zen lehen eta baita gaur egun ere. Tabernan bizpahiru morroi, ohiko bezeroak zirenak, berbetan zeudela, batek, begi-ertzarekin ikusi zuen Roman zetorrela plazatik Marurirengana. Zer asmatuko?

- Hi, Miguel, bota egiok ozpina! - Bezero eta koadrilaren asmoarekin bat eginez, sukaldetik ardo botila hutsa birziklatu zuen ozpinez erdi betez... eta zain geratu ziren ez ikusiaren plantak eginez.

- Arratsaldeon Miguel eta beste denoi. - Agurtu zituen Romanek sartuaz batera. Berdin Roman. Zer gura duzu? Galdetu zion tabernariak ondo baino hobeto jakin arren bere egunerokoa eta egunean maiz errepikatzen zen eskaera.

- Ardo baso bat mesedez. - Botila berezi hartatik "ardoz" bete, eta plazaren zeharkaldiaren ondoren guztiz egarriturik edo, kolpe bakar batez edan zuen Romanek. Zalantza une baten ostean, Romanek deitu zuen tabernaria aparte.

- Aizu Miguel, mesedez, etorri hona apur baten. -Barraren beste aldera eraman, eta, Romanek ia belarrira esan zion:

- Konfiantzan Miguel, uste dut ardoa apur bat pikatua daukazula. Hori esan eta tabernatik alde egin zuen prakak askatzera edo. Iluntze hartan baserriko bidea lehenago eta errezago hartu omen zuen gizonak. Nire arrebak behintzat horrela dino.

_kirola

TXIRRINDULARITZA

Maestre taldea: “Txirrindularitza bai, ikasketak ere bai” lema iparrorratz

Iaz sortu zen Amurrioko Maestre txirrindularitza taldea. Talde berezia da, bertan dabiltzan txirrindulari guztiak ikasleak direlako. Ikasketak eta kirola uztartzeko aukera ematea da taldearen xede nagusia. Iaz zazpi kiderekin hasi zen taldea, eta hamar dira aurten.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Ez dira gutxi txirrindularitza oso kirol exijentea dela diotenak. Entrenamendu, kilometro, lasterketa eta, funtsean, denbora asko inbertitu behar izaten da goiko mailetan lehiatu ahal izateko.

Horri buelta emateko asmoz sortu zen iaz[1] Amurrioko Maestre txirrindularitza taldea. Bere bereizgarririk nabarmenena: ikaslez soilik osatutako taldea izatea. Hala azaldu du taldearen sustatzailea den Sabino Sasiain amurrioarrak.

Ikaslea izatea funtsezko baldintza da talde horretan aritu ahal izateko. “Badago ikasleak izan gabe gurera etorri diren txirrindulariak, baina ez ditugu onartu, badituztelako jada euren neurria eginiko taldeak”, adierazi du Sasiainek.

Berak argi du zein den taldearen xedea[2]: “beste modu batean txirrindularitzan aritu ezingo luketen ikasleei kirol hori praktikatzeko aukera ematea”.

Baieztapen horrekin bat egiten dute taldeko txirrindulariek. “Talde hau askoz xumeagoa da”, aitortu du Alex Uriartek. Euskal Filologia ikasten du berak, eta ziurtatu du Amurrioko Maestre taldeak “txirrindularitza eta ikasketak aldi berean” sustatzen dituela, beste talde batzuek “kirol ikuspegia” baino sustatzen ez duten bitartean.

Arkitektura ikasten dagoen Aritz Sasiainentzat, berriz, “ikasketak eta kirola kudeatzeko malgutasuna” eskaintzen duela da taldearen bereizgarria.

Karrerak irabaztea baino, karrerak bukatzea da taldearen xedea. Iaz, guztira, 43 lasterketa egin zituzten, eta aurten beste horrenbeste egiteko asmoa dute.

Hori bermatzeko, txirrindularien gurasoekin kontaktuan daudela azaldu du Sabino Sasiainek. “Noizbehinka biltzen gara haiekin, baina ez txirrindulariek euren ikasketetan ateratzen dituzten noten gainean egoteko, txirrindularitzan aritzeagatik ikasketak albo batera uzten ez dituztela ziurtatzeko baizik”.

Kasualitatez

Kide guztiak ikasleak izatearen nolakotasuna[3], baina, “kasualitatez” sortu zela ziurtatu du taldearen sustatzaileak. “Talderik ez zeukaten txirrindularientzako talde bat sortu nahi genuen”. Pedro Maestre bizikleta taldeen sustatzailearekin harremanetan jarri ziren horretarako, proiektua finantzatu ahal izateko.

Ondoren, txirrindulariak bilatzeari ekin zioten. “Momentu horretan ikusi genuen jada beste talde batzuetan sartuak ez zeuden gazte bakarrak ikasleak zirela. Horrela sortu zen ikasle-taldea egitearen ideia”.

“Aitzindariak”

Sabinok ziurtatu du inguruan ez dagoela eurena bezalako filosofia duen talderik, eta, zentzu horretan, proiektu aitzindaria dela Amurrion sortutakoa. Oso zuzena da hurrengo galdera: “Ikasketak entrenamenduen gainetik egonda, duinki lehiatu dezakete taldeko kideek?”. Zuzena ere Sasiainen erantzuna: “Gure filosofiak hori defendatzen du”. Haren ustez, helburuak zehaztean datza gakoa[5]. Eurek badute zehaztua eurena, dituzten mugen jakitun: “lasterketak irabaztea baino, bukatzea”.

Dituzten helburuak xumeak direla ikusita, imajinatzekoa da horrek muga bat suposatuko duela babesleak topatzerako orduan. “Ba ez”, erantzun du Sasiainek, “guztiz kontrakoa. Badaude gure taldearekiko interesa erakutsi duten babesleak, dugun politika gustatu egin zaielako”. Kirol esparruan, baina, izan zuten zer ospatu iaz, denboraldia amaitu zenerako 43 lasterketa eginak baitzituzten. Gehienak EAEn egin zituzten, baina Kantabria eta Gaztelako asfaltoan barrena ere ibili ziren. Aurtengo helburua iazko marka berdintzea da. “Eta, ekonomikoki bideragarria izanez gero, biraren bat edo beste egitea”.

Hiztegi lagungarria

Iaz[1], aurreko urtean / Xedea[2], helburua / Nolakotasuna[3], ezaugarria / Jada[4], dagoeneko / Gakoa[5], klabea

Julen
Reketa
MENDIZALEA

_Helmugari so

Mundu zabalera

Paraje ederrak, une gozoak, egoera latzak, babesik gabeko tokiak, herritar hurbilak... anitzak dira, mendiz mendi ibilita, gure motxilan sartzen diren esperientziak, pasadizoak.

Anitzak dira ere, bidean aurkitu ditugun pertsonak, hizkuntzak, herriak, ohiturak, erlijioak, kulturak. Horiexek dira, hain zuzen, bidaiak eskaintzen digun altxor preziatua. Mendi magaletan, ondoko herri txikietan sherpak, kirgizistandarrak, uzbekoak, kazakhstandarrak, baltikoak, kitxuak, arabiarrak eta hainbat lagun bide anitzetan zehar.

Anitzak ere gure munduak: 1.mundua, 2.mundua, 3.mundua, 4. mundua. Arraza dela eta, ekonomia dela eta, mundua sailkatuta. Nik 1. mundutik sarritan 3. mundura abiatuta, hango pertsonekin, maiz adiskidetasuna sentitu dut, errespetuz jo errespetua jaso. Hau izan da nire bizipena. Etxera bueltatzean, urrutiko jende horrekin zein modu xume eta errazean elkar ulertzen dugun, nire buruan pentsamendu hori bueltaka.

Hau amets laburra ! Gure lehenengo munduan, gizartea lehiakorrak, diruak botereak markatzen dituzte bideak, erritmoak, bakardadeak, isolamenduak. Sistema bortitza ! Gure artean ulertzea erreza? Komunikaziorik dago?

Nire 3. munduko lagunak urrun daude baina gertu nire buruan, xumeak, epelak, eskuzabalak... hirugarren munduan primerako pertsonak.

_kirola

TXIRRINDULARITZA:

30 aiaraldearrek hartu dute parte Orbea Monegros-eko maratoian

Aiaraldeko 30 kirolari inguruk hartu dute parte Orbea Monegros maratoian. Parte hartzaileek 123 kilometro egin behar izan dituzte bizikletaz, Europako basamorturik handienetarikoa den Monegrosetik (Aragoi). "Deabruaren igoera" bezala ezagutzen den aldapa ere igo behar izan dute.

TAEKWONDO:

Olga Gutierrezek Espainiako Taekwondo txapelketan parte hartuko du

Olga Gutierrezek emakumezkoen master 1 kategorian urrezko domina lortu zuen apirilean Balmasedan egindako Taekwondoko Euskadiko Helduen Teknika Txapelketan. Gauzak hala, kirolariak maiatzean egingo den Espainiako Taekwondo Txapelketan Euskadi ordezkatzeko aukera izango du.

MENDI BIZIKLETA:

Argazki lehiaketa antolatu dute III. "Urduña hiria" gau martxaren baitan

Gualdetxu Mendi Bizikleta Taldeak "Urduña hiria" gau martxaren III. edizioa egingo du maiatzaren 16an. Martxa horri loturik argazki lehiaketa bat ere antolatu du taldeak. Martxaren irudiak hartzea izango da lehiaketaren xedea. Oinarriak gualdetxumbt.club weborrian kontsultatu daitezke.

GIMNASIA ERRITMIKOA

"Azken orduko akats bategatik ez nintzen sartu Espainiako Txapelketako podiumean

NEREA MONASTERIOk (Amurrio, 1999) hamargarren postua eskuratu du Gimnasia Erritmikoko Espainiako Txapelketan. Euskadiko txapelduna ere bada.

Euskadiko Txapelduna da Monasterio/ aiaraldea

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Espainiako Txapelketatik itzuli berri zara. Zer moduz joan da?

Esperientzia ona izan da. Aresketa klubetik bost gimnasta joan gara: Paula Lopez eta biok *juvenil base* kategorian eta Idoie Velez, Irene Esparza eta Maialen de la Peña kadete kategorian.

Ni hamargarrena geratu naiz, azken orduko akats batek podiumean sartzea galarazi didalako.

Baina oso ondo egon da: Paulak 23. postua eskuratu du, Maialenek 33.a, Irenek 89.a eta Idoiek 124.a, kategoria bakoitzean beste berrehun gimnastekin lehiatu ondoren.

Nola hasi zinen gimnasia egiten?

Zazpi urterekin Ikastolako jai batean nagusiek gimnasia dantza egin zuten eta gustatu zitzaidan. Amari esan nion eta izena eman nuen. Txikitatik egiten dut.

Zein da gehien gustatzen zaizun esparrua gimnasiaren barruan?

Nik nahiago dut banaka lehiatu. Bost tresnen artean -soka, pilota, zinta, mailuak eta uztaia- aukeratu behar duzu. Nik uztaia dut gogokoen baina aurten mailuarekin hasi naiz. Astero 9 orduz entrenatzen dut eta balleta ere egiten dut astean behin mugimendu finagoak egiteko.

Txapelketak hurbiltzen direnean gehiago entrenatzen duzue?

Ez, ordu kopurua bera da baina entrenamenduak biziagoak dira. Dantzak entrenatzaileak sortzen ditu, taldekakoak zein norbanakook egiten ditugunak.

Zure ustez, zer nolako etorkizuna duzu gimnasian?

Nik hobetu nahi dut eta hobetzen dudan heinean gehiago exijituko diot neure buruari. Baina ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean.

Futbola:

CD Laudio desagertzeko arrisku larrian dagoela dio klubak

ERREDAKZIOA I

Hitzordu garrantzitsua izan zuten iragan astean CD Laudioko bazkideek zuzendaritza berria osatzeko. Bilera horretan, klubaren hauteskundeetarako zerrendak aurkeztu behar zituzten, baina lau bazkide bakarrik agertu ziren.

Horren ondorioz, norbaitek lekukoa hartzen ez badu ekainaren bukaera baino lehen.futbol klubaren zuzendaritzak bukatutzat emango du CD Laudioren ibilbidea.

Zuzendaritza berria eratuko ez balitz Laudioko udalak erabaki beharko luke klubaren etorkizuna.

Zorrak

2013-2014 denboraldian 2. B mailan jokatu zuen CD Laudiok eta aurrekontuetan egindako akatsen ondorioz zor handiak pilatu zituen klubak, jokalariekin eta enpresekin, besteak beste[1]. Zor horien ondorioz, Arabako Liga preferentean bukatu du CD Laudiok.

Luzea izan da klubak egindako ibilbidea 1927an S.D Llodiana izenarekin sortu zenetik. Gerra Zibila zela-eta, sei urteko etenaldia izan zuen, harik eta Villosa enpresak berriz martxan jarri zuen arte. Beste hainbat aldaketa izan zituen taldeak, harik eta 2006an CD Laudio deitzera pasa zen arte.

Hiztegi lagungarria

Besteak beste[1], beste gauza batzuen artean

TRIATLOIA

Oinkariak Triatloi Taldea garaile atera da Eguesen

ERREDAKZIOA I

Lehen postua lortu zuten Amurrioko Oinkariak Triatloi taldeko kideek Eguesen (Nafarroa) egin zen Taldeko Duatloian. Zortzi kidek hartu zuten parte, eta 5 kilometro korrika, 20 bizikletan eta, bukatzeko, beste 2,5 korrika egin behar izan zituzten, zortziek batera.



_herriko plaza

_agurrak

Inuntze

Zorionak printzesa 8 urte jada!!! Ondo pasa eguna etxekoen partez. Musuak!

Etxekoak

Izei

Zeu zaude egunkarian! 2 urte betetzea ez da nolanahiko kontua eta, jakina!

Andere, aita ta ama

Mikel

Zorionak Mikel!!!!!!!!!!!! 34 belarri tirakada berezien taldeko aititeri!

Koadrila

Josu

ZORIONAK JOSU!!!!!!!!!!!! Zure lagunen eta Kiliren partez 30 belarri tirakada

Lagunak

Ana

Zorionak Ana!!!!!!!!!!!!!!! Zure koadrilaren partez 29 belarri tirakada

Koadrila

Iaioa

Nagusiena nagusitzen ari zaigu udaberriarekin batera. Indarrak hartu, ospatu beharra dago eta! Muxu!

Koadrila

Iker

Zorionak Barambitxu!! 30 urte ez dira egun guztietan betetzen eta!!

Lagunak

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera maiatzaren 12a baino lehen.

_hitz-gurutzatuak



❖ Artziniegako auzoak.

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Gauzak bakarrik egiteko kapaza ez zarela uste duzu, hori baita erosoena burmuina dantzan ez izateko. Ez izan alferra, asko kostata ere helburuak betetzen baituzu beti azkenean, ikasi ahal izateko ikasteko gogoak behar dira. Gogoa eta ilusioa, alegia.

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Birziklatzea ondo dago. Egunero gogoan duzun ideia da: zaborra sailkatzen duzu, orriak berrerabiltzen dituzu, argia kontrolatzen duzu, baina... gastatzen duzun ur kantitateari buruz zer? Noizbehinka bainua behar duzunaren aitzakiarekin astero bat hartzen duzu! Hori aurpegia zurea!

HERENSUGE
03.21-04.20

Azkenaldi honetan maitasun kontuetan ez zabiltza oso fin. Inguruko pertsona askok buruhauste asko ekarriko dizkizute. Baina, ekaitzaren ostean barea datorren bezala, zure momentua helduko da, ikusiko duzu!

LAMIA
04.21 - 05.20

Zuretzako berezia zen pertsona horrekin topatu zara eta ondorioz buruko minarekin heldu zara etxera. Ez kezkatu, maite ditugun pertsonak beti maitatuko ditugu, baina zure bihotz erraldoi horretan pertsona askorentzako lekua daukazu.

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Mina, mina eta mina... hori da erakusten duzun guztia. Botika eta mediku bila zabiltza momentu oro, ez al duzu pentsatzen bizimodu hori zure gaitz guztien arrazoia izan daitekeela? Zorabioak, futbolean ematen dituzun ordu guztiak... aizu! Esnatu!

BASANDERE
06.21 - 07.20

Orain arte egindako esfortzu guztiak eragina izan dute zure osasunean; bai buruan eta baita gorputzean ere. Ez deuseztatu egindakoa, lan handia egin duzu eta. Jarraitu orain artekoa egiten irribarre hori zure aurpegitik ez joateko, animo asko eta segi horrela!

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Astelehena, haginetako mina... alferraren astea kanta abestu, zuretzako aproposa baita! Zortea ez da pertsonarekin jaiotzen, zortea izateko lan egin behar da. Fruituak emateko urteak eman behar dira enborra sendotzen.

JENTILAK
08.22 - 09.22

Zalantzak dituzu erabakiak hartu behar dituzun bakoitzean. Hori ez da guztiz negatiboa, ziurtasun ezak hausnarketa luzeak egitera bultzatzen gaitu eta erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean erantzun sendo eta egokia ematen laguntzen gaitu.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Bizitza ti-ta batean joaten da. Gaur bihar baino bi euro gehiago gastatu behar baduzu gastatu itzazu eta horren abantailaz gozatu. Ez xahutu guztia, baina dena gorde beharrean oparia egin iezaiozu zure buruari!

MARI
10.23 - 11.22

Gutxi gelditzen da kurtso amaierarako, nota finalak eta bataz bestekoak dira nagusi. Gainditzea lehenengo pausua da, baina etorkizuneko ametsak betetzeko esfortzu handiagoak egin behar baduzu ez zaitez konformatu eta ekin!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Paisai ederrak ditugu Euskal Herrian. Kotxea daukan kide baten bila zabiltza beti, baina garraio publikoa hartuta ere leku zoragarrietara heldu zaitezke!

SUGAAR
12.20 - 01.19

Zure pentsaerak ez besteenak bihurtu. Denon iritziek errespetua merezi dute, eta zuk nahi duzuna inposatzeak zure burua bakarrik ikustera eramango zaitu.

_sudokuak

ZAILA

				6				5
2			3		8		4	6
				4	2			
	2	5					6	8
			6	7				
		4					5	
8		9	7		6	5		
		6	5	3		7		
5	7						3	9

ERREZA

				7	2	4		
				4	8	6		
		5	9				2	
	7	4	8		9	5		
				6		8		
	8	9	7		3			
						3	4	2
5	2							7
4		6			7	9		8

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_irakurlearen txokoa

_agenda

05.07 OSTEGUNA

18:00 LAUDIO
LAUDIO BIZI
BERDINTASUNA BIZI
Berdintasun plana osatzeko saioa
Erabilera anitzeko aretoa

20:30 URDUÑA
OTXOMAIOAK
Kalejira, txupinazoa eta kontzertuak
Foru Plaza

05.08 OSTIRALA

17:30 URDUÑA
OTXOMAIOAK
Mozorro jaia eta jolasak
Ikastetxe Publikoko txosna

18:30 OKONDO
TAILERRA
"Bellas a lo bestia"
Okondoko Eskola

19:00 URDUÑA
KALE ANTZERKIA
Txatarra, Malas Compañías taldearen eskutik
Gernika plaza

19:00 LAUDIO
NAFAR JARDUNALDIAK
Orreagako guda eta Nafar Erresumaren jaiotza
Kultur Etxea

20:30 URDUÑA
DANTZALDIA
Kosmos eta Atzekabe taldeen eskutik
Foru Plaza

22:00 URDUÑA
PILOTA
Ladis Galarza-Iturriaga, Berasaluze II-Apraiz Elezkano II-Aretxabaleta
Frontoia (20 €)

05.09 LARUNBATA

09:00 LAUDIO
AZOKA
Tokiko baserritarren azoka
Herriko Plaza

11:30 URDUÑA
OTXOMAIOAK
UMEEN EGUNA
Puzgarriak eta bizikleten gynkana
Josefinoak

19:00 URDUÑA
OTXOMAIOAK
UMEEN EGUNA
Txiki Txiki Big Band
Foru Plaza

21:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Fake Against the Machine eta The Armenian
Sorgin Taberna

00:00 URDUÑA
OTXOMAIOAK
Five Corners, Basorantz, Pushermen taldeen konzertuak
Foru Plaza

05.10 IGANDEA

09:15 LAUDIO
HERRI URRATS
Autobusa, maiatzeran 4tik 7ra izena emateko aukera
Institutua (10 €)
13:00 LAUDIO

11:30 URDUÑA
OTXOMAIOAK
Poni eta zaldiak
Zezen plaza

05.13 ASTEAZKENA

16:30 ARESPALDITZA
I. SEKTOREAREN ASTEA
Esperientzia errentagarriak
Erabilera anitzeko aretoa

05.14 OSTEGUNA

11:00 LAUDIO
HITZALDIA
Atzerritarren araudia ezagutzeko saioa
Kultur Etxea

12:00 ARESPALDITZA
I. SEKTOREAREN ASTEA
Nekazaritza Politika Bateratua
Erabilera anitzeko aretoa

18:00 LUIAONDO
BIRZIKLAPENA
Zati organikoa birziklatzeko kit banaketa
Padura kalea

05.15 OSTIRALA

SAN ISIDRO JAIAK

5.15 OSTIRALA
ARESPALDITZA

09:30 Artisauen azoka

10:30 Abereen erakustaldia eta Pirinioetako Behi-azienda Hautatuaren Arabako I. Lehiaketa

11:00 Umeen eremuaren irekiera

11:00 Zati organikoa birziklatzeko kit banaketa

12:00 Meza

12:45 Herri Kirolak.

13:00 Tokiko produktuak dastatuko dituzte

20:00 Lobo and Carmine, kontzertua

11:30 OROZKO
SAN ISIDRO JAIAK
Kalejira
Arbaiza auzoa

19:00 LAUDIO
NAFAR JARDUNALDIAK
1512 Nafarroako konkista, Anjel Rekalderen eskutik
Kultur Etxea

18:00 LAUDIO
LIBURU AURKEZPENA
Txani Rodreiguez: "Ez naiz barazkijalea, eta zer?"
Udal liburutegia

20:30 URDUÑA
OTXOMAIOAK
Play Back eta koreografien V. lehiaketa
Foru Plaza

05.16 LARUNBATA

08:30 LAUDIO
LAUDIOAR ZIKLOTURISTA
Lasterketa eta Joane Somarribari omenaldia
Aldai Plaza

18:00 OROZKO
SAN ISIDRO JAIAK
Ospakizunak
Arbaiza auzoan

OTXOMAIOAK

05.16 LARUNBATA

09:00 Gamako aintziran Umeentzako Arrantza.
11:30 Umeentzako I. Triatloia Foru Plazan.
13:00 Kantu Poteoa.
15:00 Herri Bazkaria Gernika Plazan
18:00 Errekortadoreen lehiaketa.
19:00 Aurresku txapelketa Gernika Plazan
22:00 Mendi bizikleta gau ibilaldia.
22:30 Kontzertuak: Gwa Ya Reegae Band, Habeas Corpus, El Bastón de la vieja
23:00 Ai Laket-eko karpa furgoneta, drogen testa
00:00 Kalejira.
04:00 DJ.

ZINEMA

05.09 LARUNBATA

"LA BUENA MENTIRA"
LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

05.10 IGANDEA

"INTO THE WOODS"
AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3 €)

"ASTERIX, JAINKOEN EGOITZA" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA 17:30ean (3 €)

"LA DAMA DE ORO"
AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

05.11 ASTELEHENA

"LA DAMA DE ORO"
AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

05.16 LARUNBATA

"A ESCONDIDAS" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

05.17 IGANDEA

"CENICIENTA" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"NEGOCIADOR" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

05.18 ASTELEHENA

"NEGOCIADOR"
AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

etxaurre
higiezinen agentzia

PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: 180.000 €
80 m², 3 logela, 2 bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela, garajea eta trastelekua, negoziagarria
Erref.: 167.522

PISUA SALGAI LUIANDON
Prezioa: Kontsultatzeke
95 m², 3 logela, bainugela berria, txukundegia, sukaldea berria. Gorenezko akaberak eta kalitateekin, garajea eta trastelekua prezioaren barne.
Erref.: 99. 954

PISUA SALGAI OKENDON
Prezioa: Kontsultatzeke
320 m², 4 gela, 3 bainugela berriak, sukaldea altzairuzko hornituta eta kanpoaldera, 25 m² egongela, terraza, garajea, 50 m²-ko loratega
Erref.: Erref.: 162.663

PISUA SALGAI LLODION
Prezioa: Kontsultatzeke
117 m², 3 logela, bainugela eta komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela jantokiarekin, egongela txikia balkoiarekin, garajea eta trastelekua.
Erref.: 167.583

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

AMURRIO ANTZOKIA

Jimmy jazz gasteiz

MAI 9 // BAND OF FRIENDS
A celebration of the music of
RORY GALLAGHER
21:00 (18 € + gastuak /23 €)

MAI 14 // THE MUGGS + ELDORADO
21:30 (12 + gastuak / 16 €)

MAI 15 // GUADALUPE PLATA
21:00 (12 + gastuak /15 €)

MAI 16 // LOS CHIKOS DEL MAIZ
21:00 (10 + gastuak /13 €)

MAI 22 // RICHIE RAMONE
+ Venrez (USA)
+ Golden Grahams (BCN)
20:00 (20 € + gastuak)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

_ezin galdu

LAUDIOAR ZIKLOTURISTA: Adin guztiko pertsonentzako egitaraua prestatu du Laudioko txirrindularien taldeak. III. Laudioar Zikloturista ez ezik umeentzako bizikleta eguna ere antolatuko dute. Eta horretaz gain Joane Somarriba txirrindularia omenduko dute.

HERRI URRATS: Iparraldeko ikastolei sustengu ekonomikoa emateko jaia maiatzaren 10ean ospatuko da Senperen: Betagarri, Willis Drummond, Irrien Lagunak... Laudio eta Amurrioko udalek antolatutako autobusetan izena emateko epea Maiatzaren 7an bukatuko da (10 euro).

_kontra

Gorka Belasko

Mikaru Muñoz

"Jende guztia da frikia. Ni mangaren frikia naiz, beste batzuk futbolaren frikiak diren bezala"

Soraya "Mikaru" Muñoz (Amurrio, 1991) manga (komiki japoniarraren inguruan sortutako kultura) du gustuko. Manga pertsonaien antzezpenak egiten ditu lagunekin, eta sari ugari lortu dituzte hainbat topaketetan.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Nondik datorkizu manga munduarekiko zaletasuna?

Niri asko gustatzen zaizkit bideojokoak. Bideojoko asko japoniarrak dira, eta dituzten abestiak japonieraz daude. Hori dela eta, jakin-minak bultzaturik, interneten bilatzen hasi nintzen, eta hor topatu nituen mangak eta animeak, eta orain arte.

Mundu zabala da mangarena. Zerekin geratzen zara?

Manga bera, komikiak. Hemen ikusten dugun komiki estiloarekiko guztiz ezberdina da. Beste mundu bat da.

Manga asko izango dituzu etxean...

Komiki bilduma daukat, komikietan zentratzen naiz. Hogeita hamar inguru izango ditut. Beno, gauza bat da komikiak irakurtzea eta beste bat etxean izatea. Aurkitzeko zailak dira, oso gutxi daudelako itzuliak. Ingelesez irakurtzea beste aukerarik ez da geratzen, internet bidez.

Eta baduzu manga topaketetara bertaratzeko ohitura?

Bai. Normalean *cosplay*ak egiten ditut topaketa horietan, eta lehiaketetara aurkezten naiz. Manga-sail baten pertsonaiaz jantzi eta berau imitatzean datza *cosplay*a. Pertsonaiaren arropa egiten duzu, ileordeak erosten dituzu...

Noizbait irabazi duzu lehiaketarik?

Bai. Bi modalitate daude: indibiduala eta taldekakoa. Ni normalean taldekakoan aurkezten naiz, nire lagunekin. Bi zatitan banatzen da lehiaketa: alde batetik "cos" dago. Hau da, pertsonaiaren jantzia egitea. Bestetik, "play", pertsonai horren mangaren pasarte bat antzeztean datzana. Biak hartzen dira kontuan lehiaketaren irabazlea hautatzerako orduan.

Zortzi lagun aurkeztu egin ohi gara. Hogei talde inguru aurkezten dira, eta normalean irabazi egiten dugu.

Antzeztu dituzun pertsonaietatik bat aukeratzerik?

Bai. Beatrix, Final Fantasy IXko pertsonaia bat. Berarekin asko identifikatzen naiz eta oso gustura sentitu nintzen antzeztu egin nuenean. Antzeztuko dudan hurrengo pertsonaia The Boss da, Metal Gear Solid 3 bideojokokoa.

Manga zaletu asko dago Aiaraldean?

Nik nire lagunak ezagutzen ditut, eta Amurrion ere beste pertsonaren bat edo ezagutzen dut. Horiek kenduta Bilbokoak dira ezagutzen ditudan gainontzekoak. Baina orokorrean zaletu asko dago.

Badago manga zaleak "frikismoarekin" lotzen dituenik. Zer esango zenioke jende horri?

Ez dakit. Nire ustez jende guztia da frikia. Niri, adibidez, manga eta animea gustatzen zaizkit. Beste bati futbola gustatuko zaio, futbolaren frikia izango da. Ba beno, ni manga frikia naiz, nahiz eta friki terminoa ez zaidan asko gustatzen.

Itziar
Urquijo
PSIKOPEDAGOGOA

_Leihotik

Urrutitik kantu

Espazioko bi punturen arteko tartetzat hartzen da distantzia. Behin motel irakurrita, sinpleegia dirudi definizioak, laburregia, konplexutasunik gabekoa. Distantziek munduaren tirabirak bideratzen dituztela esatera ausartuko nintzateke, orain eta hemendik, milaka kilometroetara, kilometroak ez baitira distantziaren errudun. Hermetismoa berriz bai. Berrikuntzarik ez onartzearekin batera, munduari sorbalda ematearen erabakia. Txanponaren alde bakarra ikustearekin nahiko, txanpona dela jakiteko. Pertsonen arteko lehen distantzia, beraz, hermetismoa. Ezberdintasuna, berriz, bigarrena. Kilometroek, munduaren alde batean edo bestean kokatzen gaituzte, eskaileraren muturretan etengabe. Oreka baten baitan murgilduz gero arazorik ez, berdintasunaren arauen aurrean, eskailerak muturrik ez. Hala ez bada, eskaileraren goi partean kokatzen gara automatikoki, gainontzekoak goitik begiratuz. Distantziekin jarraituz, umilena, ezjakintasuna. Historikoki ezjakintasunaren izenean esandako hainbat hitz oker eta gordetako hainbat irtenbide utopiko egon dira. Azkenean, distantzia, norberaren baitan baino ez dago, ez kilometroetan, kilometroei esker ari bainaiz hausnarketa hau transmititzen.

GOROBEL
Fisioterapia
BULARREKO KOLIKOAK
MASAILEZUR DISFUNTZIOA
ARNASKETA FISIOTERAPIA
JARRERA BERREZITZE GLOBALA
LOTAILU ETA MUSKULU LESIOAK
T. 945 71 28 31
M. 695 83 17 86
Gernika plaza, 8 baxua
URDUÑA (Bizkaia)

OrduWare
INFORMATIKA ZERBITZU TEKNIKOA
ORDENAGAILU KONPONKETAK
VIRUS ETA MALWAREEN EZABAKETA
INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIOA
DATUEN BERRESKURATZEA
ANDROID MUGIKORREN KONPONKETA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
WWW.ORDUWARE.COM
GRAN VIA 10,SOLAIRUARTEA
48460, URDUÑA (BIZKAIA)
669 20 82 99
616 61 24 87
INFO@ORDUWARE.COM
PRESUPUESTOS@ORDUWARE.COM